

**EUSKO JAURLARITZAREN  
2015-erako  
AURREKONTU-  
EGITASMOAREN  
BALORAZIOA**

**ELAko AZTERKETA BULEGOA**

2014-XI-17

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA





## 1. ZERGA-POLITIKA ALDATZEA BAZTERTZEN DA, ETA AURREKONTU-DIZIPLINA ONARTU

Eusko Jaurlaritzaren 2015eko ekitaldirako aurrekontu-proiektua aurrez hartutako bi erabaki politikok baldintzatu dute: Finantzen Euskal Kontseiluan (FEK) PNV, PP eta EH Bilduk gobernaturiko hiru Foru-Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak datorren urterako finkatu dituzten diru-biltze aurreikuspenak, eta Jaurlaritzak Rajoyren gobernuarekin iritsitako akordioa, defizita 2014ko BPGdaren %1etik 2015ean %0,7ra jaisteko.

FEKaren akordioaren arabera, datorren urtean EAEn 2014an baino 680 milioi euro gehiago biltzea espero da (300 BEZari esker). Diru hori administrazio guztien artean banatu behar da. Bilduko den diruari buruzko aurreikuspen hauek ez dira inola ere nahikoak, eta ondorioz, azken urteetako aurrekontu-politika berberei eustera garamatzate, non murrizketak nagusi diren.

Gainera, aurreikuspen hauekin propio baztertzen da egungoa ez bezalako zerga-politika bati heltzeko aukera. Sinetsarazi nahi badigute ere baliabide publikoak goitik emanak daudela, benetan zerga arloan hartzen diren erabakien arabekoak izan ohi dira. Eta EAeko zerga-politikak iruzur fiskal izugarria onartzen du, errenta altuak eta enpresen zein kapitalen errentak arin zergapetzen dituelarik; horrek baliabide publikoen maila apalagoa izatea dakar, eta errejimen fiskal bidegabea iraunarazten du. Presio fiskalari dagokionez Europar Batasuneko azken postuetan gaude; ondorioz, gastu maila ere europara baino beherago dago osasungintzan, hezkuntzan, prestazio sozialetan, etab.

Bestalde, Urkulluk Rajoyrekin hitzartu zuen 2015ean defizit publikoa BPGdaren %1etik %0,7ra murriztuko zuela; horrek esan nahi du gasturako 200 milioi euro gutxiago izango direla.

Zerga-politika aldatzeko aukera baztertzea eta espainiar gobernuak aurrekontu-diziplinan hartzen dituen erabakiak hartzea; horixe da aurrekontu honetarako abiapuntua. Aukera biak zalantzan jarri behar dira. Eztabaida ez da daukagun dirua zertan gastatu, baizik zein beharizan dugun eta nola finantzatuko den.

## 2. JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOAK EKONOMIAN GERO ETA PISU TXIKIAGOA DU

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-proiektuan jasotako gastua **10.288,4 milioi eurokoa** da (guztira aurkeztutako 10.639 milioiei Jaurlaritzak abiadura handiko trenerako aurreratu eta gero espainiar gobernuak itzuliko dizkion 350,5 milioiak kenduta iristen da kopuru horretara).

Zenbateko hori **BPGdaren %15** da; beraz, 2015ean Euskal Autonomia Erkidegoan gastatuko den 100 eurotik 15 Jaurlaritzari dagozkio. Gastua BPGdaren arabera neurtzeak hark ekonomiaren bilakaerarekiko duen gorabehera neurtzeko beta ematen du; hortaz, oso interesgarria da erabakitzeko gobernuak gastu publikoan zenbateko ahalegina egiten duen.

Azken urteetan Jaurlaritzak gastu publikoa murriztera jo du. Egungo krisi ekonomikoaldi honi begiratuta, eta ondorioz, bere eragina alde batera utzita, ikus daiteke Eusko Jaurlaritzak gastu publikoa mozten jarraitu duela, krisiaren aitzakiaz. Zehazki, gastu publikoa 2009ko BPGdaren %15,5etik 2015eko %15era jaitsiko da. Zer esan nahi du honek? Lakuak 2009an egin zuen gastuaren aldean **327,8 milioi euro gutxiago** jarriko duela.

**1. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA %/BPGd).  
2009-2015 (\*)**

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
10.254,5	10.160,5	9.954,9	9.898,7	9.240,1	9.813,1	10.288,4
%15,5	%15,0	%14,6	%14,8	%14,0	%14,7	%15,0

*Iturriak: Eusko Jaurlaritzza, Eusko Legebiltzarra, Eustat*

*(\*) Urte hauetan kenketa egin da: 2009 ekitaldian 50 milioi euro, 2010ean 167 milioi, 2011n 218,3, 2012an 347,7, 2013an, 339,3 milioi, 2014an 350,7 milioi eta 2015ean, 350,5 milioi. Kopuru hauek Jaurlaritzak aurreratzen ditu abiadura handiko trenbidea eraikitzeko, baina Espainiako Gobernuak Kupo bidez itzuli ohi dizkio.*

*2011tik hona ere kendu beharko lirakeke Jaurlaritzak enplegu-politika aktiboen transferentzia medio Kupo bidez urtero jasotzen dituen zenbatekoak, baina hauei buruzko informazioak ez dago.*

*BPGda neurtzeko aldaketa metodologikoa egin zenez, txosten hau egiten ari zen unean antzinako metodoaren arabera kopuruak soilik 2009 ekitaldirako zeuden; beraz, urte hartarako BPGd estimatu bat erabili da, oinarritzat 2010, 2011 eta 2012 ekitaldiak hartuta (hauei buruzko informazio eguneratua badago).*

**3. ZOR PUBLIKORA DOAN GASTUAK HAZKUNDE ESPONENTZIALA IZAN DU**

Benetan, Eusko Jaurlaritzak bere eskumeneko gaietarako baliabideak bideratzeko ahalmen erreala aurreko puntuan aipatutako 327,8 milioi horiek baino askoz gehiago murriztu da, zor publikoak igoera handia izan baitu.

2. taulan ikus daitekeenez, **zor publikorako gastuak** hazkunde esponentziala izan du urteotan, amortizazioari (aurrez mailegutan hartutako kapitala itzultzea) zein interesei dagokienez . 2009ko ekitaldiko 83,6 milioi euroak ia **12 bider gehitu dira**, 2015eko zorrerako gastua 989,4 milioi euro izango baita.

**2. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ZOR PUBLIKORAKO URTEKO GASTUA  
(MILIOI € ETA %/GUZTIRAKO GASTUA). 2009-2015**

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
AMORTIZAZIOA	61,2	123,7	169,5	174,5	199,9	469,5	711
INTERESAK	22,5	74,3	143,4	190,3	213,0	249,8	278,4
ZOR PUBL.GASTUA	83,6	198,0	312,9	364,8	412,9	719,3	989,4
% GAST. / GUZTIRA	%0,8	%1,9	%3,1	%3,7	%4,5	%7,3	%9,6


*Iturriak: Eusko Jaurlaritzza, Eusko Legebiltzarra*

Beraz, zein da Eusko Jaurlaritzak benetan balia dezakeen gastu publikoaren bilakaera, **zorraren ordaina kenduta**? 2009an geratzen ziren 10.170.9 milioi eurotik (BPGdren %15,3a) kopurua 2015ean 9.299 milioira jaitsiko da (BPGdaren %13,6), hots, 871 milioi euro gutxiago izango dira.

Zorraren eraginez gastu publikoaren jaitsiera nabarmen handiagoa dela erakusten du 1 grafikoak (marra bien arteko tartearen hazkundeak islatzen du zorraren igoera).



# 1. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA ZOR PUBLIKOAREKIN ETA ZOR PUBLIKORIK GABE (%/BPGd). 2009-2015




Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Honela, **zorrak Jaurlaritzaren guztirako gastuan duen zatia ere zeharo hazi da**, hain zuzen 2009ko %0,8tik 2015eko %9,6raino. Hau da, Eusko Jaurlaritzaren 2015eko gastuaren ia %10 zor publikoa ordaintzako izango da.

Azken urteetan sortu den zorraren hazkundearen ondorioz, **zor bizia (hots, Jaurlaritzaren guztirako zorra)** oso maila altura iritsi da, 2. grafikoak adierazten duen moduan. Zehazki, zor bizia 2009ko BPGdaren %3,1etik **2015eko BPGdaren %12,2**raino; 3,1% del PIB en 2009 al **12,2% del PIB en 2015**; ia Eusko Jaurlaritzaren urteko gastu osoaren parera ailegatu da.

## 2. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN ZOR BIZIA (%/BPGd). 2009-2015



Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Agintariek gehien erabili ohi duten argudioetako bat da azken urteetan zor publikoa gastu soziala gehitu beharraren ondorioz puztu dela, baina hori ez da egia.

Ikusi dugun bezala, Eusko Jaurlaritzaren zorraren hazkundea ez da eman bere gastua igotzearen ondorioz (murriztu egin da gastu hau), aplikaturiko zerga politika injustua dela eta foru aldundien diru bilketan jaitsiera nabarmenaren ondorioz baizik (batez ere 2009ko jaitsiera). Honela, 2013 urterarteko ekitaldi guztietan 2008an baino nabarmen gutxiago bildu da; 2013 urterarte 2008ko diru sarrerak mantendu izan balira, 7.037 milioi euro gehiago bildu izango ziren. Eusko Jaurlaritzaren zorra exponentzialki handitu da nolabait, gastu publikoa ordaindu ahal izateko. Eusko Jaurlaritza zor hori ordaintzera behartuta dago orain, hala egiten aritu izan da, eta hala egiten jarraituko du datozen urteetan, horretarako gizarte gastua jaitsiz. 2014 eta 2015 ekitaldietarako diru sarrera aurreikuspenak 2008ko antzekoak badira ere, Eusko Jaurlaritza sartu jada zorraren espiralean.

## 3. TAULA. HITZARTURIKO ZERGEN BILKETA (MILIOI EURO). EAE, 2008-2015 (\*)

2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
12.834,2	10.792,1	11.700,0	11.480,9	11.408,2	11.752,1	12.402,0	13.080,0

Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Euskal Finantzen Kontseilua

(\*) 2014 eta 2015 ekitaldietako zenbatekoak aurreikuspenak dira

#### 4. OSASUNeko GASTUA BERRIRO JAITSI DA, NAZIOARTE MAILAREKIKO DEFIZITA MANTENDU ARREN

Eusko Jaurlaritzak 2015ean 3.390,5 milioi euro bideratuko ditu osasungintzara 2015ean, hots, BPGdaren %4,9; honek esan nahi du 2009an jarri zen BPGdaren %5,3arekiko **242,2 milioi euro adinako jaitsiera**.


**4. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOA OSASUNGINTZAN (MILIOI € ETA %/BPGd). 2009-2015**

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
3.508,9	3.542,3	3.415,8	3.365,4	3.300,0	3.339,9	3.390,5
%5,3	%5,2	%5,0	%5,0	%5,0	%5,0	%4,9

*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat*

3. grafikoak erakusten du EAEko gastu publikoa arlo honetan ELGEko txikienetakoa dela (daukagun informazioaren arabera, Polonia, Estonia eta Turkiak baino ez dute BPGdaren portzentaje murriztagoa osasungintzara bideratzen). Zehazki, 2012ko ekitaldian EAEn osasunera BPGdaren %5 bideratu zen, **ELGEko herrialdeetako batez besteko maila baino 1,7 puntu gutxiago alegia (non BPGdaren %6,7 gastatzen den), edota 1.141,7 milioi euro gutxiago**. Deigarria da espainiar Estatuak berak ahalegin handiagoa egitea, 2012an BPGdaren %6,9, proportzioan EAEk baino 1.270 milioi euro gehiago. Halaber, interesgarria da beste datu bat: Greziak eta Portugalak ere osasun arlora BPGdaren zati handiagoa bideratzen dute (%6,2).

**3. GRAFIKOA. OSASUNeko GASTU PUBLIKOA (%/BPGd). ELGE, 2012**



*Iturriak: ELGE, Eusko Jaurlaritza, Eustat*



## 5. HEZKUNTZAN ERE JAITSIERA IZANGO DA BERRIRO; INGURUKO HERRIALDEEKIKO ALDE NEGATIBOA AREAGOTU EGINGO DA

Hezkuntzarako aurreikusitako gastua 2.561,8 milioi euro izango da, BPGdaren %3,7, 2009an baino 0,5 puntu gutxiago, edota **362 milioi euro baliokide**.

### 5. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA %/BPGd). 2009-2015


2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
2.824,1	2.783,6	2.715,6	2.625,1	2.462,1	2.562,6	2.561,8
%4,3	%4,1	%4,0	%3,9	%3,7	%3,8	%3,7

*Iturriak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat*

(\*) 2013 ekitaldian Hezkuntza Sailaren egitura aldatu egin zen, Hizkuntza-Politika eta Kultura ere hartu baitzituen bere gain. Seriearen bilakaera homogeneoa aztertu ahal izateko, ekitaldi hauetarako bi arlo horien gastua kendu egin da.

Hezkuntzako gastu publikoaren beheranzko joerak ez du laguntzen **ELGE**ko herrialdeekiko daukagun defizita murrizten. 2012 ekitaldian ELGEen batez beste BPGdaren %5,6 bideratu zen hezkuntzako gastu publikora, hots, EAEn baino 1,6 puntu gehiago. ELGEko ahalegin berdina egitekotan, Eusko Jaurlaritzak **1.090,1 milioi euro gehiago gastatu behar izango zukeen**. Deigarria da honekiko ere espainiar Estatuak EAEko gobernuak baino gehiago gastatzea (2011an BPGdaren %4,8, hots, 557,8 milioi euro baliokide). Gainera, hezkuntzan, osasungintzan ez bezala, Poloniak, Estoniak eta Turkiak ere EAEk baino BPGdaren portzentaje handiagoa bideratu zuten. Izan ere, daukagun informazioaren arabera, ELGEko estatu batek ere ez du EAEk baino BPGdaren portzentaje txikiagorik erabiltzen.

### 4. GRAFIKOA. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA (%/BPGd). ELGE, 2011




*Iturriak: ELGE, Eusko Jaurlaritza, Eustat*



EA Eran itzulita, 5. grafikoan ikus daiteke **Eusko Jaurlaritzaren hezkuntzako gastu publikoaren jaitsiera tarte guztietan gertatzen dela:**

- **Haur eta lehen hezkuntzarako** 910,1 milioi euro aurreikusi dira, BPGdaren %1,33, hots, 2009 ekitaldiarekiko 229,3 milioiko jaitsiera baliokidea.
- Aurrekontu-proiektuan 906,9 milioi euro jaso dira **bigarren hezkuntza eta LHrako**, hau da, BPGdaren %1,32, eta 2009arekiko 123,4 milioi euro baliokide gutxiago.
- **Unibertsitate** mailako hezkuntzarako 310,8 milioi euro aurreikusi dira, BPGdaren %0,45, 6 urte lehenago baino 70,8 milioi euro baliokide gutxiago.

### 5. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA, HEZKUNTZA-TARTEAREN ARABERA (%/BPGd). 2009-2015



Iturriak: Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarra, Eustat

### 6. ETXEBIZITZAKO GASTUAK BEHEA JO DU

Etxebizitza sailarentzat 2009tik hona izan duen gastu mailarik apalena aurreikusi da proiektuan, 106,85 milioi euro (2014ko ekitaldia salbuespena litzateke, zenbatekoa oraingoz itxiera aurreikuspen bat besterik ez baita). Izan ere, eurotan kopurua erdira murriztu da. 2009ko ekitaldian BPGdaren %0,33 bideratu zen, eta 2015ean %0,16 izango da, hots, **118,2 milioi euroko murrizketa baliokidea**. Hau da, Jaurlaritzak 2009an etxebizitzan egin zuen gastuari eutsiz gero 118,2 milioi gehiago erabili ahal izango zituzkeen, aurrekontu-proiektuan jasotakoaren bi halakoa eta gehiago.

### 6. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKOA (MILIOI € ETA %/BPGd). 2009-2015

2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
217,39	182,56	123,00	146,16	125,65	97,42	106,85
%0,33	%0,27	%0,18	%0,22	%0,19	%0,15	%0,16

Iturriak: Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarra, Eustat

## 7. GIZARTERATZE ETA BATERAGARRITASUN GUTXIAGO

Eusko Jaurlaritzak 2014ko Beharrian Sozialen Inkesta egin du, eta honek erakusten du pobrezia EAEn asko hedatu dela. Esaterako, **benetako ongizaterik gabeko** pertsonak 2014an 248.000 omen ziren, **2008an baino %41 gehiago**, edota biztanleriaren %11,5.

**Pobrezia arriskuan** egon eta prestaziorik jasotzen ez duen biztanleriaren **hazkundera** erakusten du inkestak, eta **gizarte babeseko sistematik at geratzen den pertsona behartsu gero eta gehiago** dagoela geratzen da agerian.

Zer egiten du Eusko Jaurlaritzak gizarte larrialdi honen aurrean? 2015eko aurrekontu-proiektuaren ezaugarriak:

- Prestazio ekonomiko guztietan (Dirusarrerak Bermatzeko Errenta edo DBE barne) zenbatekoa %7 murrizteko erabakiari eusten dio. Murrizketa hau Patxi Lopezen gobernuak erabaki zuen, eta aurrekontuetan urtez urte mantentzen ari da.
- **Gizarte-Larrialdietarako Laguntzetarako (GLL)** 21 milioi euro jarrikod itu. Aurreko urtearekiko 0,5 milioi euro gehiago aurrerapauso bat dela saldu nahi izatea iraingarria da pobrezia hain larria den uneotan. Datorren urtean ere, erabakia aldatu ezean, GLLetarako aurrekontua 7 hilabetean agortuko da, eta hortik aurrerako beharrianak ez dira asetuko.
- DBE eta Etxebizitzako Gasturako Prestazio Osagarriarako (EGPO) 461 milioi euro aurreikusi dira aurrekontu-proiektuan, 2014ko itxiera-estimazioko antzeko kopurua.

Agerikoa da prestazio sozialen zenbatekoa derrigor hobetu behar dela, eta orain jasotzen ez dituzten kolektiboak ere aintzat hartu beharra dagoela.

**Lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko diru laguntzak** ere %7 jaitsi dira, eta GLLak bezala, eskubide ez izaterakoan, bere aurrekontu zuzkidurak **murrizketa nabarmenak** pairatu ditu. 2012ko 37,2 milioi euroetatik 2013ko 19,2 milioietara jaisten dela partida honen gastua ikus daiteke 8. taulan, 2013an Eusko Jaurlaritzak ekitaldi horretako ordainketen parte bat atzeratzea erabakitzen baitu. 2014 urterako zuzkidura 2013koa baino txikiagoa da, eta beraz, ekitaldi horretako ordainketen atzerapenari 2013koak gehitzen zaizkio. 2015eko aurrekontu proiektuko zenbatekoa 30 milioi eurotararte igotzen da, baina zenbateko horren parte handi bat aurreko urte bietako ordainketetan atzerapenak ordaintzeko izango da. Gainera, 2015eko 30 milioiak 2012 ekitaldiko 37,2 milioiak baino gutxiago izaten jarraitzen dute.

### 8. TAULA. BATERAGARRITASUNEAN EUSKO JAURLARITZAREN GASTO PUBLIKOAREN JAITSIERA (MILIOI EURO). 2012-2015\*

2012	2013	2014	2015
37,2	19,2	17,1	30,0

*Iturriak: Eusko Jaurlaritza*

*(\*) 2012 eta 2013 ekitaldietarako kapitulu honi buruzko informazio zehatzik ez dugunez, 2015eko aurrekontuan bateragarritasun laguntzek familiei transferentzietan duten portzentaiaren arabera estimatuak izan dira. 2014 eta 2015eko zenbatekoak aurrekontu proiektuetakoak dira.*

Zer erakusten du Eusko Jaurlaritzak eintza hauekin? Bateragarritasunean bere politika diskurtso hutsean geratzen dela, diru zuzkiduretan gai honi lepoa ematen ari baita. Haur eta pertsona nagusiek zaintzarako duten estaldura eskasa gehitzen badiogu honi, egoera tamalgarriarekin aurkitzen gara.



## 8. AHT, MURRIZKETETAN SALBUESPEN

AHTrako aurrekontu zuzkidura 350,5 milioi eurotakoa da 2015 ekitaldian; Eusko Jaurlaritzak aurreratu egiten du zenbateko hau eraikuntza honetarako, baina espainiar gobernuak itzuli egingo dio beranduago. Zenbateko hau BPGdaren %0,51koa da, eta 2009 urtearekiko 276,5 milioi euro baliokideren hazkundera suposatzen du. Era honetara, AHTa, beste arloek pairatzen dituzten murrizketen artean salbuespenean bilakatzen da.

### 9. TAULA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA ESPAINIAKO GOBERNUAREN GASTU PUBLIKOA ATH-RAKO (MILIOI € ETA %/BPGd). 2009-2015

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
FINANC. PROPIA	21,5	20,1	29,1	29,1	23,0	0,0	0,0
CRÉDITOS G.	50,0	167,0	218,3	347,7	339,3	350,7	350,5
<b>TOTAL</b>	<b>71,5</b>	<b>187,1</b>	<b>247,4</b>	<b>376,8</b>	<b>362,3</b>	<b>350,7</b>	<b>350,5</b>
<b>%/PIB</b>	<b>%0,11</b>	<b>%0,28</b>	<b>%0,36</b>	<b>%0,56</b>	<b>%0,55</b>	<b>%0,52</b>	<b>%0,51</b>

*Iturriak: Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarra, Eustat*

## 9. ONDORIOAK

2009 eta 2015 urteen artean Eusko Jaurlaritzak zor publikora bideratuko gastua 900 milioi eurotan gehitu da. Epealdi horretan, osasungintzan (118 milioi), hezkuntzan (262 milioi) eta etxebizitzan (110 milioi) murrizketak 490 milioi eurotakoa izan dira. Murrizketarik ematen ez denaren behin eta berriz errepikaturiko Jaurlaritzaren diskurtsoa gezurtatzen dute datuek. Murrizketak burutu egiten dira, eta osasungintza edo hezkuntzako sistemen kalitatea okertzen ari dira, eta baita pobrezia eta gizarte babesik ezar areagotzen ere.

**Zorraren igoera hori eman izan ez balitz, 900 milioi horiekin, Eusko Jaurlaritzak osasungintzan, hezkuntzan eta etxebizitzan emaniko murrizketak (aipaturiko 490 milioitakoak) ekidin izan ahalko zituen, eta oraindik dirua sobratuko litzaikoe, adibidez, bateragarritasun diru laguntzen eskaerei aurre egiteko, edo eta bazterketaren aurkako politika aurrerakoia eraman ahal izateko, eta ez murrizketaz betea, egiten ari den bezala.**

Aplikaturiko zerga politika bidegabearen ondorioz emaniko diru sarrera publikoen jaitzieraren ondorioz gehitu da Eusko Jaurlaritzaren zorra, eta beraz, beharrezkoa da **zor horren legezotasunari buruzko ausnarketa egitea, eta baita bere itzulerari buruzkoa ere.**

Baina Eusko Jaurlaritzak ez du gastua zorra ordaintzearen bakarrik jaitsi, gastu publikoa 1.200 eurotan jaitsi baita 2009tik; honek, zorraren ordainketa alde batera utziz, Eusko Jaurlaritzak gastu publikoa beste 300 milioi eurotan jaitsi duela adierazten du.

Gainera, Foru Aldundiek 5.585 milioi euro biltzeari utziko diote gastu fiskalak direla eta, hau da, era horretako progresibitate zalantzagarridun desgrabazio, exentzio e.a. aplikaturiko ez balira, Ogasunen diru sarrerak %56 altuagoak izan ahalko lirakeke.

Hala ba, diru sarrera publikorik eza, eta baita gizarte gastuan murrizketak ere, aukera politiko bat dira, Eusko Jaurlaritzak, PNV, EH Bildu eta PP alderdi politiko ezberdinek gobernaturiko EAEko Foru Ogasunekin batera, hautatu duen aukera.

Jokabide politiko hau are larriagoa da egungoa bezalako koiuntura ekonomikoan, zerga presio altuagoa eta gizarte gastu handiagoak inoiz baino beharrezkoagoak direnean.

